

«Afganistango presidente komunista, nire aita zena»

Bosgarren solairu batean zekaten etxea, Kabul-en. Sobietarrak altxatutako apartamentu bloke bat zen. Heelak dio goizean goiz esnatzen den horietako bat izan dela beti. Txikitan, bere gelako leihotik, eguzkia mendien artean altxatzen ikusten omen zuen egunero. Lagun amankomun baten bidez iritsi gara berarengana. «Najibularen alaba ezagutu nahiko zenukete? Zurichen bizi da egun», esan digu. Handik egun gutxi batzuetara, Heela Najibularekin ari gara hizketan.

«Azaroko egun hotz batean» jaio zela dio, 1977an. Ama irakaslea zuen, eta aitak ginekologia ikasketak bukatu berri zituen. Bere jarriogatik zen ezaguna Mohamed Najibula, bai eta bere indar fisikoagatik. «Zezena» ezizena ez zitzaion ustekabez egokitu. Politikan ere aktiboa zen oso: Heela mundura etorri orduko hamabi urte zera matzan jada Afganistango Alderdi Demokratikoan. Bere hiru alabetako lehengoa zuen Heela; bi hilabete besterik ez zituen komunistak boterera iritsi zirenean Afganistanen.

1979an, Najibula herrialdea gobernatuko zuen batzorde komunistako kide bilakatu zen, baina alderdi barruko lehia eta liskarrek Teheranera, Irango hiriburura, bidali zuten, enbaxadore.



HEELA NAJIBULA

ERREFUXIATU AFGANIARRA

Haurtzaroa nola igaro zuen galdetu diogu

Mohamed Najibularen alaba zaharrenari.

Eta nola bilakatzen da errefuxiatu presidente baten alaba? Bere aitaz ere hitz

egin digu, jakina.

Karlos ZURUTUZA

Afganistandik urruti nahi zuten. Familiak Belgraden bilatu zuen babesa. Onai, bigarren alaba, han jaio zen, eta Jugoslavian bizi izan ziren laurak, sobietarrak 1979ko abenduan Afganistanen sartu ziren arte.

1980ko urtarrilean, zerbitzu sekretuetako buru izendatu zuten Najibula. Karguan eman zituen sei urte haietan zehar, Heela autobusez joaten zen eskolara. Etixerako bidean, tomateak eta pepinoak lapurtzen zituen etxe pareko baratzeetan eta, batzuetan, aitak Soldaduen Klubera eramaten zuen. Billarrean eta ping-pongean jokatzeko ikasi du bertan.

Bizitza ederra da Mikrorayonen (bere auzoa). Klean giroa

dago beti, bai eta Kabulgo supermerkatu eta jatetxe onenak ere. Bat-batean, Heela orduko marrazki bizidunak ere gogoratu da: Tom eta Jerry, Barbapapatairak... Eta Sizilia-ko mafiari buruzko serie hura? Octopus izena zuelakoan dago. Igandeetan botatzen omen zuten eta elkarrekin ikusten zuten etxean beti.

Guztiak oso normala dirudi, baina ez da hala. Zera dio atso-titz zaharrak: «Afganistan mundua sortu osteko hondarrez eraiki zuen Jainkoak». Hamaka herri dira 7.000 mila metroko gailur eta basamortu lau eta idor horien artean: paxtunak, tajikak, balutxak, kirgizak, hazarak, uzbekoak eta turkmenak... Herrialdeko mugak, baina, XIX. mendean marraztu ziren. Britainiar eta errusiar inperioen arteko «bionbo» bat izatea egokitu zitzaion Afganistani.

Horren ondorioak XX. mendearen bukaeran ere nozitzen ziren. «Lauzpabost urte izango nituen gatazkaren kontzeptua ulertu nuenean. Etxe alboan jaurtigaia erortzen ziren eta gero eta liskar armatu gehiago zeuden». Heelak sei urte besterik ez zituen, baina jakin bazekien gerra batek maite duzun norbait desagerrarazi dezakeela. Bere andereñorik kuttunena izan zen lehenengoa. Haurdun zegoen bonba batek akabatu zuenean. Mastoura izena zuen. Heriotza haren ondorioz Heelak ez zuen eskolara bueltatu nahi.

1986ko maiatzean, bere aita Komite Zentraleko idazkari nagusi izendatu zuten, Afganistango agintari berria. Presidentetzaren eraikinen gunera mugitzea gomendatu zieten Najibulatarrei, baina haren alboko etxe batean instalatu ziren azkenean. «Aldaketa itzela

IBILBIDEA

Ama eta
ahizpekin Indiara,
enbaxadore zen
osabaren etxera, ihes
egin zuten. Gero Suitzak
bakarrik eman zion bisa
eta gero munduan zehar
giza laguntzan aritu da

zen niretzako: ez neukan beste
umeeekin inolako kontakturik,
soilik bisitan etortzen zirene-
nak ikusten nituen».

Sobietarrek 1947. urtetik
zeukaten Afganistan beren or-
bitapean. Gobernu aliatu bat
lortzearen truk, diru kantitate
itzelak iristen ziren Moskutik,
eta azpiegiturak hobetzen la-
gundu zuten: errepideak, zu-
biak, tunelak, erietxeak, Mi-
krorayon bezalako auzoak....
Aldi berean, hainbat baso era-
bat garbitu eta mendiak bon-
bardatu zituzten sobietarrek,
mujahidinek (gerlariek) ezku-
tatzeko tokirik izan ez zezaten.
Herrixka asko ere hustu eta
herritar asko bahitu zituzten
soldaduek, batez ere emaku-
meak.



inbaditzea pentsatu omen
zuen. 1989. urtean Gorbaxo-
vek tropak erretiratzeko agin-
dua eman arren, gatazka biziki
gaiztotu zen. Ohi legez, ez zen
zerbaiten alde borrokatzen,
norbaiten kontra baizik. Eta
Mosku ez baldin bada, alboko
bailarakoak izan daitezke, edo
«heretikoak», edo «jainkoaren
etsaiak», xiiak nahiz suniak...
Denak denen kontra. Denak,
gainera, kanpotik iritsitako ar-
mez josita.

Najibulatarrak porlanezko
murruek artean bizi ziren or-
duan, etxeko beheko solai-
ruan. Neskatoek jangelan egi-
ten zuten lo, eta bulegoan
gurasoek. Kabulgo eskola guz-
tiak aspalditik itxita zeuden.
«Erabateko isolamendua izan

zen. Gure amak ematen zizki-
gun klaseak, eta dena gero eta
zailagoa zen guretzat, bai eta
afganiar ororentzat ere, jaki-
na». Heelaren osabetako bat
enbaxadore zen Indian, eta ha-
rengana jo zuten amak eta hi-
ru alabek. 1991. urteko azaroa
izan zen aita azkenekoz ikusi
zuten aldia. Ez ziren inoiz be-
rriz elkartu.

«Dena dut gogoan. Amak
esan zigun ez ginela bueltatu-
ko. Nik hamalau urte nituen
eta zaila oso egiten zitzaidan
onartzea ez nintzela eskolara
buelatuko, edota lagunak ez
nituela berriz ikusiko».


Aitak esan zien beraiekin el-
kartuko zela, herrialdea egon-
kortu bezain pronto. Baina ezi-
nezkoa izan zen. Mohamed

Najibulak Italian zegoen erre-
ge zaharrarekin kontaktatzea
lortu zuen, eta trantsizioak
iraun bitartean «nazioaren ai-
ta»-ren rola beteko lukeen gal-
detu zion. Antza, mujahidinen
sektore handi batek ontzat
eman zuen behin-behineko
gobernuaren proposamena
eta geroko hauteskunde deial-
dia. Bat-batean, Nazio Batuek
Najibularen berehalako dimi-
sioa eskatu zuten, eta horrek
bertan behera utzi zuen tran-
sizioa. Ofizialki, Afganistango
gobernu komunista 1992ko
apirilean erori zen. Kabulgo
Nazio Batuen egoitzan bilatu
zuen babesa Najibula presi-
denteak. Harresi haietatik kan-
po, gerrako jaunaren erreinuan,
anabasa zen nagusi.

HEGAZTI MIGRATZAILEAK

«Afganistangoa ez zen, inon-
dik ere, sobietar komunismoa;
ez zen Urriko Iraultzaren afga-
niar bertsioa, ez genituen Le-
ninen bustoak gurtzen. Otoi
egiten genuen eta Ramadana
bezalako ospakizun erlijiosoak
gordetzen genituen. Sobietar
Batasunean, aldiz, ez zen ho-
rrela gertatzen». Afganiar
iraultzaileen akatsei buruz ere
galdetu diogu Heelari. Bi azpi-
marratu ditu: «Lurren bat-ba-
teko desjabetzeak lidergo tri-
bala kolpatu zuen, eta horrek
tentsio handia piztu zuen gi-
zarte mailan. Bestalde, emaku-
mezkoak berdintasunean hezi
nahi izatea oso erradikala zen
orduko gizarterako».

Edonola ere, afganiarrek
kanpotarren susmo txarrak
izateko arrazoi sendoak izan
dituzte beti: Alexandro Han-
diaren garaietatik, estatuba-
tuarrak 2001. urtean bertaratu
ziren arte. Tartearen, persiar-
rak, mongoliarrak, britainiar-
rak eta errusiarrak igaro ziren; Hi-
tlerrek berak ere Afganistan



«Delhin geunden. Aitak lehen hilabetea ezkutatuta eman ostean, hurrengoan etorriko zelakoan geunden denok. Hori esaten ziguten beti». Baina lau urteko itxialdia izan zen. Familia arteko komunikazioa eskutitzen bidez gauzatzen zen edo, zortea lagun –oso gutxitan–, bisitan etortzen ziren Nazio Batuetako kideetako baten satellite telefonoaren bidez. 1994 amaitezear zegoen eta Afganistan ehunka feudotan desegin zen jada. Ziotenez, teologia ikasle talde batek Kabulera inoko ibilbideari ekin zion; bidean, beren etsaien buruak zintzilikatzen zituzten tankeen kanoietatik. Mila egun baino gutxiago behar izan zituzten herrialde osoa mendean hartzeko. Najibula presidentearen exekuzioak gerra baten bukaera eragin zuen, eta beste baten hasiera.

DESERRIA

Aita galdu ostean, Heela India-ko kaleko umeekin hasi zen lanean, Delhi hirian. «Ni baino okerrago zegoen jendea egon bazegoela ulertarazi zidan esperientziak. Une hartan, medikuntza ikasteko matrikula egitea erabaki nuen. Australia, Erresuma Batua eta antzeko herrialdetara bidali nituen eskaerak, baina Suitzak baino ez zidan bisa eman». Medikuntza ez, Nazioarteko Harremanak ikasi zituen Heelak Alpeetan. Gurutze Gorriaren lana mires-ten zuenez, lanpostu bat eskatu zuen bertan. Baina ez ze- kien frantsesez, eta oraindik ez zeukan behin betiko erres-identzia baimenik. Atzerrira jo- tzea gomendatu zioten eta In- dia hautatu zuen, Gurutze Gorriaren Nazioarteko Federa- zioarekin bat egiteko. Handik Nepalera; Bangladesh, Kanbo-



dia, Sri Lanka eta Bangkok ja- rraian, migrazio edo giza trafi- koaren gaietan ardaztuta beti. Hamabi urteko ziklo haren on- doren, Suitzara bueltatu zen. Egun, «bitartekaritza eta seni- detzea» gaitzat duen tesiare- kin dabil buru-belarri Zurich-eko Unibertsitatean.

«Nire aita nolakoa zen? Oso pertsona emozionala zen, zo- rrotza bezain sendoa bere era- bakietan, baina gurekin jolas- tu eta abesteko prest zegoen beti. Delhin nengoeneko bere eskutitz bat gordeta daukat: tenis eskolak zeuden, baina

«Bere aitaren gorpua erail zuten talibanen kontrolpeko herrixka batean omen dago. Hara joateak bere bizitzako kapitulu garrantzitsu bat ixten lagunduko liokeela dio. Zaila izango da, baina auskalo...»

mutilak ziren nagusi haietan eta nire amak ez zidan haieta- ra joaten uzten. Aitari kontatu nion eta inoiz ahaztuko ez du- dan azalpena eman zidan or- duan: 'Ez dago mutilen eta nesken arteko desberdintasu- nik, biok gaitasun berak bai- tauzkagu'. Nire amaren beldu- rra gizartearen epaiketa zela zioen aitak, horretaz babestu nahi ninduela».

Gizon krudela ere bazen as- koren aburuz, batez ere zerbi- tzu sekretuetako buru jardun zen urte haietan zehar. Horri buruz galdetu diogu Heelari.

«Jende guztiak galdetzen dit, jakina. Twitterren badago era guztietako basakeriak sala- tzen dituen jendea: bati azala kentzen ikusi omen zuen ba- tek; beste batek begiak, koilara batez... Sarri zientifikoki ezi- nezkoak diren istorioak dira. Legedi bat zegoen, prozedura batzuk... Heriotza zigor batek, esaterako, presidentearen eta Justizia ministroaren sinadu- rak behar zituen. Nire aita es- tatu horretako kide nabarmen bat izan zen, baina ez nuke esango jendea pertsonalki tor- turatu zuenik. Ezin ukatu erre- presaliatuak egon zirela, baina ez da ahaztu behar Gerra Ho- tzaren urterik beroenak zirela, eta halakoxea zela propagan- da ere».

Heela ez da oraindik Afga- nistanera bueltatu. Askotan pentsatu izan duela dio, baina, halakoetan, hango emakume ezkongabe baten bizitza irudi- katzea nahikoa zuen pausoa ez emateko. Gainera, Nawaren ama da egun. «Nolakoa izango zen bere bizitza?». Edonola, afganiarra bere jaioterriari lotu- ta dago oraindik. Makina bat hitzaldi eta bestelako ekintze- tan hartzen du parte, eta arti- kulu ugari idatzi ditu azken urteotan. Egungo Dohako bake prozesua dela eta, Heelak dio gauza batez konturatu dela: «Amerikarrak ere erretiratze- ko irrikan daude. Gatazkari konponbide bat bilatzea ez da inoiz izan euren helburua».

Egun, Afganistango presi- dente komunista zenaren gor- pua talibanen kontrolpeko he- rrixka batean omen dago. Haren alabarik zaharrenak dio bisita xume batek bere bizitza- ko kapitulu garrantzitsu bat ixten lagunduko liokeela. Ba- daki zaila izango dela, baina, auskalo. Historiak erakusten du ezer ez dela betirako.